

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Sozietate Publikoak eta Aldundiaren Partaidetza duten Sozietateak

### ARABAKO KALKULUGUNEA, SA

#### ADMINISTRAZIO ZUZENDARITZA

**Herritarrei arreta emateko zerbitzu proiektua kontratatzeko lizitazioa, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren eta web orriaren erabilerak sor ditzakeen arazo eta kontsultei erantzuteko 2017an eta 2018an zehar**

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratu legearen testu bategina onartzen duenak, 141. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa betez, lizitazio iragarki hau argitaratzen da honako proiektu hau kontratatzeko: herritarrei arreta emateko zerbitzua eskaintzea, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren eta web orriaren erabilerak sor ditzakeen arazo eta kontsultei erantzuteko 2017an eta 2018an zehar.

1. Erakunde esleitzaila:

a) Organismoa: Arabako Kalkulugunea SA

b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Administrazio Zuzendaritza.

c) Espediente zenbakia: 2017004

2. Kontratuaren xedea:

a) Objektuaren deskribapena: Herritarrentzako arreta zerbitzua ematea, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren eta web orriaren erabilerak sor ditzakeen arazo eta kontsultei erantzuteko 2017an eta 2018an zehar.

b) Gauzatze lekua: Vitoria-Gasteiz.

c) Gauzatzeko epea: kontratua izenpetzen denetik 2018ko abenduaren 31 arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Forma: lehiaketa

4. Zenbatekoa, guztira: 171.900,83 euro (BEZa aparte). (Balio zenbatetsia: 687.603,30 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipenaren zenbateko garbiaren edo lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

Erakunde: Arabako Kalkulugunea SA, "Administrazio Zerbitzua"

Helbidea: Probintzia plaza, zk.g.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

Telefonoa: 945 181887

Faxa: 945 181913

Interneteko helbidea: [www.ccasa.es](http://www.ccasa.es)

7. Kontratastaren berariazko betekizunak:

- a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen proiektu honetarako.
- b) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa: baldintzen pleguan eta ezaugarrien koadroan eskatzen dena.

8. Eskaintzak aurkeztea:

- a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 2016ko azaroaren 21a.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Baldintzen pleguan jasotzen dena.
- c) Eskaintzak aurkezteko lekua: Administrazio Zerbitzua.

Erakundea: Arabako Kalkulugunea, SA

Helbidea: Probintzia plaza, zk.g.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001.

Zer ordutara arte: 13:00ak.

Eskaintzak posta bidez aurkeztekotan, Herri administrazioen kontratuen Legearen Erregela-mendu Orokorraren 80. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 2 hilabete..

9. Beste argibide batzuk: Administrazio zerbitzuan.

10. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontu izango dira.

11. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2016ko urriaren 11

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 21a

*Kontseilari eskuordea*

**JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA**